

Ikastoliak... 25 urte

Ermuko ikastoliak 25 urte betetzen ditu. Herriko ume asko bertan eskolak hartutakuak dia. Honek, euren gurasuek ta herritar guztiek urteurren hori ospatzeko, programa zabal bat eukiko dabe eskura. Oingo ta lehengo kontuen barri jakittek asmoz, Ikastolako zuzendaria dan Koldo Aranberriakin egin dugu berba.

Liburutxo bat argitarau bihar dozuela entzun dogu. Zer jasotzen da bertan?

Ikastolaren istorixia, erretratuak... Berandu arte gauzak idatziz jaso ez zianez, hasierako istorixia jakittek, gurasu sortzailiengana ta orduko andereñuengana jo bihar



Julio Kagetaren "kintako" ikasleak.

Gipuzkuako herri batzutan ikastolak sortzen hasi ziala ta Ermuan be zeozer ein behar zala ikusi zan. Hasi plazan hasi bazian, eskolak

zokiko frontoia, abadetxia, Balerio, kanterako lokala... Sasoi haretan ikastolia legala ez zanez, matrikulaziñua Zentro Kulturalian einda zeuan. Andereñuak, oster, gaztiak ziran ta ez zeukien ez titulorik, ez baimenik, ez lokalik, ez hurrengo egunian zer pasau leikien barri. Bai andereñuak ta bai gurasuak, merito haundiko bihera ein zebe, kontutan eukitta egoera irregular hori, danentzat kaltegarria izan zala.

Hasierako urtietan, beste eskoletan oindiñok ezagutzen ez zan

eskolaurre edo guarderixa modura funtzionatzen zebe. Gero, sei urte betetzean, gurasuek euren umiak beste eskola batzutan sartzen zittuezen, bihar dan beste ikasiko ez ete zebe bildur.

Gurasuen orduko bihera, nun ikusi zan?

Diru arazoei aurre egiteko, eurak antolau izan ziran beti. Sarritan ipintzen zebe tabernarako, turnuak eitten zittuezen, etxian eindako frituak ta tortillak salduaz. Umiekin nunbaittera juan bihar zala ta gasoliñia ta autua eurak ipintzen zebe. Lokalak eskuratzeko be, gehixen mobidu bihar izan zianak, gurasuak izan zian: lokalik ez zeuanez, elixako gelak erabiltzeko asmua zeuan ta eskatzeko obispuarengana juan zian.

Gaurko ta orduko gurasuen artian, desberdintasun haundixak, ez?

Bai, horixe. Gaur egunian, %60xa erdelduna da. Hasierako gurasuak, euskararen militantiak zian ta ikastolia euren gauza lez sentitzen zebe. Oin 25 urtekuen ikastoliarekiko loturia ez daukie,

"Hasierako gurasuek ikastolia euren gauza lez sentitzen zebe".

izan dogu. Holan, gurasu batzuen inziati baz sortutako gauza bat izan zala jakin dogu. Kontua da

emoteko herriko lokal mordua erabili zian: Kaltxangoko Salaberriako etxia, Ongarai, elixia, Bat-

25 URTEAK OSPATZEKO HILABETE OSOKO EGITARUA

Martxoak 1- 25. Urteurrenaren Liburu aurkezpena

Martxoak 4- Kalejira.

Martxoak 5- Ume jolasak (plazan); txirindulari lasterketa;

Oskorri eta Kukubiltxo (Aritz Mendin, 19.30etan)

Martxoak 6- Eskubaloia, futbito, roko-dromoa, xakea.

Martxoak 8- Diapositibak ("K2", Zine-man, 19.00etan)

Martxoak 10- Mahai-ingurua, ("Emakumearen parte hartzea ikastoletan", atikoan 19.00etan)

Martxoak 11- Antzerkia (Zine-man 14.30 eta 22.00etan)

Martxoak 12- Pilota partiduak (Plazan 11.30etan); Athletic-Real Sociedad taldeetako jokalarik ohien partiduak (San Pelaio 17.00etan);

Julio Kagetaren kontzertua (Plazan 23.00etan)

Martxoak 13- Mendi irteera

Martxoak 15- Diapositibak ("Inken bidea" atikoan 19.00etan)

Martxoak 17- Mahai-ingurua ("Euskararen normalizazioa" atikoan 19.00etan)

Martxoak 18- Koruen ekitaldia (Zine-man 22.00etan)

Martxoak 19- Ume jolasak; Dantza taldeen emanaldia eta Larrain-dantza;

Bertsolariak 22.00etan

Martxoak 20- Herri kirolak; Bazkaria eta trikitilariak (Aritz Mendin)

Txaranga herrian zehar

Martxoak 7-20- Erakusketa (atikoan):

Tximeletak, ikastolako argazki zaharrak eta umeen eskulanak.



ez oinguak. Lehen, gainera, kriston kuotak ordaintzen zian. Etara kontuak oin dala 20 urte 3.000pz-ta, pagatziak ze esfuertzu suposatzen zeban.


Gaur egunian, indar gehixen zetan emoten dozue?

Euskera dala ta erretzen dogu energixa gehixena. Herrixan ikastolia euskararen garantixia lez ikusten da ta prestigixo hori ez galtzen ahalegintzen gara. Hortik aparte, hezkuntza ona emoten ahalegintzen gara. Hemendik 8. mailan urten bai ta eskolaumiei euren ikasketen jarraipena eitten jakue, ikasten diharduen ikastetxietara informiak eskatuaz. Holan kili-kolo nun dabizen ta nun sakatu bihar dogun badakigu. Argitaratzen dian ikastetxietako mediak hartuta, hemengo umiak maila ona daukiela ikusi dogu.

Eskolaz kanpoko ekintzei be bere zertxua emoten doutsue: herrixakin zerikusixa daukienak (Olentzero, Sta. Ageda, udalekuak...), kirolak ... trataera berezia eukitzen dabe.

Ikastolia sare publikuan sartuta egotia, aldaketarik dakartzue?

Titularidade aldaketa hau ez igertzia da gure asmua. Ekintza batzuetarako gurasuen inplikaziñua ta irakaslien militantismua nahi ta nahi ez zaindu biharra



Zuzendaria ez da ikastola bera baino askoz zaharragoa.

dao. Eskolaz kanpoko ekintza askotara bertoko maixu-maistrak juaten dia. Urte askotan herri berdiñean lanian egoten dana, herrikua izan ez arren be, azkenian inplikatu eitten da. Hemengo irakaslegua urtietan fijua izatiak, bentaja haundixa ekarri dosku.

25. urteurrena dala ta, ilusiñorik haundixena zerk emoten doutsue?

Hain egoera txarrian hasittako

ikastola batek 25 urte betetzia ta bizirik segitzia. Gaur egunian, herriko matrikula ta ume kopuru haundixena ikastoliak dauka. Guraso erdeldunek, euskera kasi dein umia ikastolan matrikulatziak, euskerarentzat daukan balixua itxelezkua da. Poztasunik haundixena, oin dala 25 urte hasittako eskalduntze prozesua etenik barik aurrera jarraitziak emoten dosku.

Eingo dian ekintzetatik, zein

azpimarrauko zenduke?

Ba, alde batetik liburua. Honekin ikasle ohi guztixak ikastolako partaide sentidu eraittia nahi izan da, erretraturen baten agertu ez arren be, bertan egon ziala sentitzia. Eta bestetik, Martxuaren 20an, Aritzmendin, ikasle, irakasle, gurasu ta gura daben guztixekin eingo dan bazkarixa, urtietan elkar ikusi ez dan jentia batzeko modu politta dalako.

Estibalitz Gonzalez

ERTZ TABERNA

Eutsi gogor euskarari

